



2020KO MEMORIA



Nafarroa etorbidea 6
20400 Tolosa
Telf: 943 655 004



www.galtzaundi.eus



galtzaundi@galtzaundi.eus



688 738 418



@galtzaundi



galtzaundi



@galtzaundi.eus

BABESLE ETA LAGUNTZAILEAK

Galtzaundiren jarduna hitzarmen bidez lagundu duten udalak: Tolosako Udala, Ibarrako Udala, Anoetako Udala eta Irurako Udala.

Galtzaundiren jarduna babestu duten gainerako udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ama-sa-Villabona, Amezketza, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ikaztegieta, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Zizurkilgo udalak.

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzza-HPS.

KORONABIRUSAK MARKATUTAKO URTEA

Egitasmoz, proiektuz, ilusioz eta erronkaz beterik zetorren 2020. urtea. Ohiko jardueraz gain, Euskaraldia prestatzen hasiak ginen, Tolosaldeko Euskararen Mahaia osatzeko urrats sendoak ari ginen ematen, eta 2019ko Tolosako kale-neurketaren emaitza historikoen inguruan ospakizun handi bat egiteko asmoari forma ematen ari gintzaizkion... bat-batean pandemia batek makina guztiak gerarazi eta etxean itxiarazi gintuenean.

Ez dugu berehala ahaztuko 2020. urtea. Eta ezer baino lehen, Galtzaundi osoaren izenean, besarkada bero bat luzatu nahi dizuegu pandemiaren eraginez gertutako bat galdu edo Covid19aren ondorioak jasan behar izan dituzuen guztioi.

Galtzaundiko lehendakari gisa, nabarmendu nahi dudana lehen gauza da, eta uste dut hauxe dela iazko punturik printzipalena, galtzaundikideok, eskualdeko herri guztietako bolondresak eta lan-taldeko teknikariek egindako lan-eskerga. Uste dut, harro egoteko moduko balantzeari egin dezakegula: aurrera egin dugu, eta jakin dugu, gure jarduerak eta egitasmo gehien-gehienak mantentzen eta egoera berrira moldatzen. Bejondeigula!

Garbi dago, egoera honen eraginez, buruan genituen amets batzuk ezin izan ditugula bete edo erdipurdi bete ditugula: Euskaraldiaren beraren garapena ez da izan guk amesten genuen bezain indartsua, hainbat kultur ekitaldi bertan behera utzi behar izan genuen, online bideratutako egitasmoetako parte hartzea txikixeagoa izan da.... Baina, 2020an erakutsi dugun kemenari esker, ziur naiz, asmatuko dugula Tolosaldeko euskararen biziberritzeari begira dituen erronka zahar-berriei erantzuten eta bide berriak zabaltzen.

Urte zail honi aurre egitea lortu dugu. Egoera zailak egokitzen dakigula erakutsi dugu, eta oztipoak oztipo, Tolosaldea gero eta euskaldunago baten bidean "gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" egiteko ilusioa eta kementa ez zaizkigula falta.

Eutsi diezaiogun, beraz, eta jarrai dezagun, guztion artean, Tolosaldea euskaldunagoa eraikitzen.



KIKE AMONARRIZ GORRIA
Galtzaundiko lehendakaria

AURKIBIDEA

Galtzaundi Euskara Taldea.....	4. or.
Galtzaundikideak.....	5. or.
Batzar Nagusia, Zuzendaritza Batzordea eta Lan-taldea.....	5. or.
Euskararen batzordeak eta sektore mahaiak.....	6. or.
Proiektu zehatzak.....	12. or.
Tolosaldeko Euskararen Mahaia.....	34. or.

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA

Izaera, ildo nagusiak eta egituraketa

Galtzaundi Euskara Taldea 1991an sortutako irabazi asmorik gabeko elkarte da. Tolosaldean euskara indarberritzea eta euskal kultura sustatzea ditu xede nagusi. 2016an hasi eta 2017an amaitu zen gogoeta estrategikoan, hiru lan-ildo nagusi bereizi ziren: 1. Galtzaundi Euskara Taldearen jarduna eskualde osora zabaltzea, euskaltzaleak antolatzea, eta mugimendua gaztetzea eta feminizatzea; 2. Gizarte aktibazioa eta sektoreen inplikazioa lortzea, eta sinergiak sortzea; eta 3. Gobernantza eta lidertza eredu berri bat sustatzea eta euskalgintza instituzionala eta sozialak osatutako Tolosaldeko Euskararen Mahaia (TEM) eratzeko prozesua bultzatzea.

Hiru ildoetan egin dira aurrerapausoak 2017tik hona. Lehen ildoak, Galtzaundi Euskara Taldea eskualdeko herri guztietara zabaltzea eta eraginkorrak izateko moduan antolatzea eskatu du. Aurreko bi urtetako lanari jarraipena emanez, diseinatutako egituraketa garatu da eta oinarri sendoak jarri dira. Hiru jarduera alorretan, bi zeha-lerrotan eta 4 azpi-eskualdetan antolatu gara:

Jarduera alorrak:

- Aktibazioa
- Jakintza

• Suistapena

Zehar-lerroak:

- Komunikazioa
- Generoa eta aniztasuna

Azpi-eskualdeak: lau batzorde eratu dira eta beren funtzionamendua egonkortu da. Eskualde mailako ekimenak bideratzeko, proiektuak partekatze eta lankidetzak adosteko aukera ematen digu horrek.

• **Alegialdea:** Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezket, Baliarrain, Bidania-Goiatz, Ikaztegieta eta Orendain.

• **Anoetalea-Aiztondo:** Aduna, Alkiza, Amasa-Villabona, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Larraul eta Zizurkil.

• **Ibarraldea:** Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Leaburu-Txarama, Lizartza eta Oresa

• **Tolosa:** Tolosa.

Lehen hiruetan, nahiz eta herri gehienetako ordezkariak izan, ez da lortu oraindik herri guztietako ordezkariak izatea, eta hori izango da datorren urteko eginkizunetako bat. Batzorde horietako kide batek Zuzendaritza Batzordean parte hartzen du.



GALTZAUNDIKIDEAK

Tolosaldeko euskaltzaleen sarea

Galtzaundi Euskara Taldeak 447 kide zituen 2020ko abenduaren 31n: 239 emakume eta 208 gizon. Eskualdeko ia herri guztietan ditugu kideak. Euskaltzale sare hau indartzea eta herri guztietara iristeko ahalegina etengabea izan da.

BATZAR NAGUSIA, ZUZENDARITZA BATZORDEA ETA LAN-TALDEA

Irabazi asmorik gabeko elkarte da Galtzaundi Euskara Taldea, eta batzar nagusi hau da gure erabakigune nagusia. Maiatzaren 21ean egin zen telematikoki, eta, ohi bezala, aurreko urteko ekintzak eta diru-kontuak, 2020ko egitasmoaren ildo nagusiak eta aurrekontua, eta Zuzendaritza Batzorde berria (karguak eta kideak) aurkeztu eta onartu zituzten bertan bildutako 21 bazkidek.

Hauek osatu dute elkarteko zuzendaritza 2020an:

Lehendakaria: Kike Amonarriz.

Idazkaria: Maite Asensio.

Diruzaina: Ainhoa Elola.

Presidente-ordea: Garikoitz Goikoetxea.

Alegialdea: Jone Garmendia.

Anoetaldea-Aiztondo: Uxo Elustondo.

Ibarraldea: Jone Arrospide.

Tolosa: Ane Izagirre.

Aktibazioa: Mikel Artola.

Jakintza: Haritz Azurmendi.

Sustapena: Nagore Arin.

Koordinatzailea: Jexux Murua.

Bost kidek osatu dute langile profesionalen taldea lanaldi dedikazio eta ardura nagusi (beste alorretan laguntzea ere tokatzen da) desberdinekin:

Imanol Artola: %100eko dedikazioa; aktibazioa.

Amaia Doyague: %50eko dedikazioa; aktibazioa.

Igor Agirre: %50 dedikazioa (urritik abendura %100); jakintza eta komunikazioa.

Idoia Lahidalga: %100 dedikazioa; sustapena eta administrazioa.

Jexux Murua: %100 dedikazioa (%50 maitzetik irailera); koordinazioa eta TEM.

Beste zenbait alor lantzeko azpi-taldeak ere baditu elkarteak, borondatezko zein lantalde profesionaletako kideek osatuta:


Jakintza batzordea, Aktibazio batzordea, Sustapen batzordea, Finantza batzordea eta

Kudeaketa batzordea.

EUSKARAREN BATZORDEAK ETA SEKTORE MAHAIK

Tolosaldean euskara indarberritzeko estrategiak garatzen diren guneeetan parte hartzeak aukera ematen digu, besterik beste, eskualde ikuspegia eta dinamika erai- kitzailleak sustatzeko eta adostutako elkarlan proiektuak gauzatzeko. Galtzaundik finkatua daukan bigarren ildo nagusia da berau eta Tolosaldeko eragile eta gizarte alor desberdinak inplikatzeko eta sinergiak lantzea du helburua.

Horiei erantzuten diete azken urte hauetan eratzen, bultzatzen eta dimamizatzen ari garen bilgune ugariak, eta baita besten ekimenez sortu eta gure parte hartzea eskatzen duten besteetako lanek ere.



Tolosaldeko Euskara Teknikarien Batzordea

Eskualdeko euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren egungo ekimena koordinatzea, elkarlanean jardutea eta urrats esanguratsuak ematea da helburua. Idoia Olano (Anoeta eta Irura), Maite Arregi (Amasa-Villabona), Tomas Ugaldebere (Ibarra), Larraitx Murgiondo eta Jexux Peñagarikano (Tolosa) eta Ainhoa Larrea (Zizurkil) udaletako euskara teknikariak, Ane Aranburu (UEMA) eta Jexux Muruak (Galtzaundi Euskara Taldea) osatu dugu taldea, eta, proposamenak egin eta egikaritze fasetan dagokiona egiteaz gain, azken honena da dinamika bermatzeko ardura. Guztira 10 bilkura egin ditu taldeak.

Jorratutako lan-ildoak: Helduen euskalduntze-alfabetatzea, biztanle berrien harrera protokolo bateratua, Tolosaldeko Euskararen Mahaia sustatzeko prozesua, Mintzalagun programa bateratua, Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina, Kirol eragileen hizkuntza ohituretan eragiteko, Udaletako hizkuntza eskakizunak bateratzeko lehen urratsa, eta partaideen esperientziak partekatzea.

Euskara Batzordeak

Tolosa, Ibarra eta Amasa-Villabonako Udal Batzordeetan hartu da parte.

o Tolosako Udaleko Hezkuntza eta Euskara Batzordea: Udal ordezkari politiko eta teknikoek, Aitzol Euskategiaren ordezkariak, Galtzaundik Euskara Taldearen ordezkariak eta UEMA-ko ordezkariak osatu dute aurten. Hiru bilkura egin ditu urteko Tolosako plangintzaren jarraipena egiteko. Eraberritze fasean dago Tolosako Udalaren antolaketa berrira egokitzeko.

o Ibarako Euskara Batzordea: Udal ordezkari eta herritarrek osatzen duten taldea. Galtzaundiko Ibaraldeko azpibatzerdeko kide Onintza Aranalde eta Imanol Artola lankideak hartzen dute parte. Dinamika handia du taldeak. Zortzi bilera egin dira.

o Euskararen Ados!: Amasa-Villabonako Udalaren inizatibaz antolatu da orain urte batzuetako dinamika berreskuratuz. Udal ordezkari politiko eta teknikoek eta herritarrek osatzen dute. Hiru bilkura egin ditu; Galtzaundiko zuzendaritza kide Uxo Elustondo eta Nagore Arinek eta Imanol Artolak hartu dute parte.





Hezkuntza Mahaia

Eskualdeko ikastetxe gehienak ordezkatuak dauden bilgunea dinamizatu eta koordinatzen ari gara. Hezkuntza Komunitatea aktibo garrantzitsua da hizkuntzaren normalkuntzan. Ikastetxeetako komunitatea osatzen dutenen (irakasle, ikasle, guraso eta langile) euskararen erabilera eta balio integratzaileak sustatzeko ekimenak bideratzeko aukera ematen digutelako. 2019an eskualdeko ikastetxe gehienak sartzeko ahalegina egin zen eta lortutako egitura sendotzen ari gara 2020an. Zehaztasunak:

- o Tolosaldeko ikastetxe publiko, Ikastola eta Kristau Eskolako ordezkariak eta UEMAko teknikariak osatutako batzordea dinamizatu du Galtzaundik. Tolosako Samaniego Eskola eta Orixe Institutu Publikoak, Laskorain Ikastola, Herrikide Kristau Eskola; Anoetako Herri Ikastola; Villabonako Zubimuxu Ikastola eta Erniobea Institutua; Alegiako Aralar Institutua; Ibarrako Uzturpe Ikastola eta Eskola Txikietako koordinatzailea horiek ordezkatzuz, Tolosaldeko UEMAko teknikaria eta Galtzaundiko teknikaria (taldearen koordinazio eta dinamizazio arduraduna) elkartu dira bileretan. COVID 19-ak eragin berezia izan du hezkuntza sisteman; halere, zazpi bilera egin dira, hauetako bi gela birtualetan.
- o Ikasle eusle programa: UEMA-ren Hedatu programarekin osagarri eginez, teoria praktikara eramatea ahalbidetzen du honek. Mahai honetan adostu da berau martxan jartzea.
- o Gurasoei euskara ikasteko eskaintza: helduen alfabetatze-euskalduntze batzordearen proposamena izan da ikastetxeetako gurasoei eskaintza egitea. Mahai honetan parte hartzea adostu da eta baita modua eta ikastetxeetako arduradunek izango duten jokabidea.
- o Euskaraldia, guraso bileretako hizkuntzak, Hedatu proiektua, Txikipedia, ...

Helduen Euskalduntze-Alfabetatze Mahaia

Eskualdean diharduten euskaltegietako (AEK eta Tolosako Aitzol udal euskaltegia) zuzendariekin hainbat bilkura egin genituen 2019an TEM proiektuaren baitan. Aurten, alorreko Mahaia eratzea eta egonkortzeko urratsak ematea adostu da eragileon artean, eta eskualdeko euskara teknikariak eta UEMA-ko ordezkaria gonbidatu dira eskualdeko helduen euskalduntze-alfabetatze aipatutako bilgunea osatzeko. Garatu duen dinamika:

- o Bost bilera egin dira: martxoaren 12an, maiatzaren 4an, ekainaren 15ean, ekainaren 30ean eta urriaren 27an.

- o Eskuarteko gaiak: ikuspegi bateratzea izan zen lehen bilerako egitekoa. Hurrengo bilkuretan, Aitzol udal euskaltegia eta Peñaskal Oinarrizko Lanbide Eskolaren arteko hitzarmena, 2020-2021 ikasturteko aurrematrikula kanpaina eta ondorengo matrikulazio kanpainaren zer-nolakoak adostea, bideratzeko neurriak hartu eta koordinatu dira.

- o Lorpenak: Peñaskal Oinarrizko Lanbide Eskolako lehen urteko ostalaritza ikasleen (gehienak kanpo-jatorrikoak dira) ikasketa prozesuan euskara txertatzeko hitzarmena adostu dute Aitzol euskaltegiak eta aipatutako zentroak; esperientzia ona suertatzen bada, gainerako lerroetara hedatzeko konpromisoa dago. Bestetik, aurrematrikula garaian eskualdeko ikastetxeetan gurasoei egiteko eskaintza adostu da eta kanpaina burutu da. Azkenik, eskualdeko udalerrri guztiei proposatu zaie beren herrietan kanpaina egitea; euskara zerbitzuak dituzten herrietan eta UEMA herrietan horiek arduratu dira, eta gainerako herrietan Galtzaundi arduratu da eskaintza Udaletara bideratu eta hauek engaiatzeaz.



Lan Munduko Mahaia

Lanbide Eskolak eta Lanekirekin osatutako bilgunea egonkortua dago; enpresen eta langilearen inplikazioa lortzea eta euskara lan hizkuntza bilakatzea da xedea. Euskaraldian parte hartzea bultzatu: informazio, aholkularitza etab. Enpresetan euskararen erabilera sustatzeko eskualde mailako go-goeta gunean (jabeak, langileak, sindikatuak, lanbide heziketa ...), sentsibilizatzeko, kontzientziazte eta lan munduan euskarak lekua irabazteko estrategiak landu eta garatzeko urratsak eman dira. Lanbide Heziketa Eskolak dira zentzu honetan aktiboenak eta hauetan ardaztu da Mahia:

- o Lan Mahairen bileran deitu eta koordinatu dira. Parte hartu dutenak: Tolosaldea Lanbide Heziketa Eskola, Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastola, Fraisoro Nekazaritza Eskola, Don Bosko Lanbide Heziketa Eskola eta LANEKI Elkartea. Guztira lau bilera egin dira.

- o Hezi eta Lan proiektuaren baitan sortutako materiala eskuragarri jarri da.

LAN-MUNDUA EUSKALDUNTZEA BADA GARAIA!

Hitzaldia

TOLOSA
KULTUR ETXEA
Azaroak 25

18:30

Sarrera doan

Hartu hemen: Galtzaundi, Kultur Etxea



Loguntzailoak

TOLOSA



Euskaraldia

EUSKARALDIA



Maddi
Etxebarria

Merkataritza Mahaia

Hizkuntzaren erabilera eta ikusgarritasuna indartzeko gune estrategikoa da 3. sektorea. Sektore horretako jendea euskararen normalkuntzan engaiatzeko eskualdeko merkatarien elkarrekin (Tolosa&Co, Oria eta Ibarakoa) dugun koordinatzeko elkargunea dinamizatu da, sektorean gauzatzeko ekimenak adostu eta bideratzeko. Jomuga komunak adostu eta elkarlanean sakondu da. Illoak:

o Hizkuntza paisaia euskalduntzeko helburuak jarri dira: Tolosa, Ibarra eta Villabonako saltokietan euskararen erabilpena eta presentzia areagotzeko proiektua adostu da.

o Eskaintza euskaraz egiteko baliabideak eta aholkularitza formulak adostu dira: Tolosa, Amasa-Villabona eta Ibarako merkatariei euskararen erabilpena areagotzeko informazioa eta baliabideak eskaini zaizkie: hizkuntza paisaia euskaratzeko materialak (Arlokako hiztegiak eta kartelak) Udaletako Hizkuntza zerbitzuaren eskaintzen katalogoak eta aholkularitza zuzena.

o Herrian herriko Udalei adostutako proiektua aurkeztu eta hizkuntzarekin zerikusia duen gaiei dagokien bitartekaritza egiteko ardura hartu da: merkatarien eskaerak bideratu etab.



2. EUSKARALDIA

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

Euskal Herri mailako ekimena da Euskaraldia, Euskaltzaleen Topagunea eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Saila direlarik arduradun nagusiak, eta berauek proposatutako marko eta irizpideen baitan antolatzen da. Galtzaundi Euskara Taldea bete-betean sartu da bere antolaketan eta berak hartu du Tolosaldeko Euskaraldia koordinatzeko eginkizuna eta ardura, gainerako eragileek onartu diotena.

Hizkuntza ohituretan eragitea eta euskararen erabilera sustatzea helburu izanik, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egin da ariketa soziala. Norbanakoaren konpromisoa ez ezik (Belarriprest edo Ahobizi), ariketa kolektiboa (Arigunea, egitea bultzatu nahia izan da Euskaraldiaren bigarren edizio honen berezitasuna.

Galtzaundi Euskara Taldeak eskualdeko 28 herriak inplikatzeko helburua jarri du, eta hori lortzera bideratu du bere ahalegina.

Plangintza oso bat diseinatu da Galtzaundi Euskara Taldeko aktibazio batzordeak gidatuta eta eskualdeko beste eragile nagusienekin koordinatuta (Herrietako ordezkariak, Euskara Teknikarien Batzordea eta UEMA), eta beste agenteen (Hezkuntzako Euskara Mahaia, Helduen alfabetatze-euskalduntzea, Tolosaldea Garatzen) ekarpenak kontuan hartu dira. Hurrengo urratsa izan da lanketa hau bideratzeko urratsak ematea.

Hurrenez hurren:

- o Udalerrak inplikatzea eta talde motorrak sortzea herri guztietan. Harremanetan jarri gara herri guztietako Udalekin eta Galtzaundi ki-deekin. 24 herri hauek eman dute izena: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Ikaztegieta, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Leaburu-Txarama, Lizartza, Ibarra, Irura, Orendain, Tolosa eta Zizurkil. Ez dira animatu: Belauntza, Hernialde, Larraul eta Orexa.



o Herrietako talde motorrekiko eta beraien arteko harreman ehuna indartu da. Galtzaundiren azpi-eskualdekako antolaketak asko erraztu du zeregin hau eta berauen bilera dinamikak baliatu dira, informazioa, egitekoak eta bestelako erabakiak hartzeko.

o Bigarren sektorearengana iristeko lankidetzaz adostu dugu Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin eta bere bidez bideratu dugu informazioa eskualdeko enpresa desberdinetara.

o Parte hartzea sustatzea. Bi fasetan banatu da aurtengoa: bat, entitate eta kolektiboen inplikazioa eta izenamatea eragiteko lanketa (urte hasieratik urriaren 1era; eta bi, norbanakoen izenematean eragitea (irailaren 24tik aurrera). Memoria honek biltzen duen epean, beraz, entitateen izenematearen sustatzea bideratu dira gure ahaleginak. Emaitzak: 285 egoitza; 1.103 arigune (672 BA eta 431 KA). Ariguneotan parte hartzeko hitz eman duten norbanakoak: 4.030 (2019ko kopuru osoen erdia); entitateen tipologia: 95 saltoki, 47 elkarte, 37 administrazio, 35 hezkuntza zentro, 27 zerbitzu enpresa, 7 gizarte mugimendu, 6 industria enpresa, 6 enpresa txiki, 2 hedabide. Langintza honetan Udalen, Tolosaldea Garatzen eta Tolosaldean dauden merkataritza elkarten laguntza izan dugu entitateei proposamena helarazterakoan.

o Komunikazio plan oso bat diseinatu da eskualde ikuspegiarekin, eta materialak sortu dira: entitateei zuzendutako informazio orriak, norbanakoei zuzendutako informazio orriak, aldizkari monografikoa etxetik banatzeko (Tolosaldeko Ataria eta Aiurriarekin), sustapenerako 10 motibazio bideo (28 kanalararekin), prentsari zuzendutako komunikazioak, aurkezpenak, teknologia berrien bitarteko sentsibilizazio eta motibazio lanak, ... Tolosaldean gehiago, gehiagotan, gehiagorekin ekitaldia (Tolosa, Leidor, irailak 26) baliatu da Euskaraldiaren aurkezpen jendetsua egiteko.

o Norbanakoen izen-emate fasea antolatu da: lehen zabalkundea, komunikazio bigarren fasea, txapa eskaera, formazio tailerrak, izen-emate mahaia eta material banaketa.

o Izena emateko eta txapak eskuratzeko Tolosako gune iraunkorra Galtzaundiren egoitzan kokatu da.

o Ekimenaren arduradunekin (Euskaltzaleen Topagunea) koordinatuta lan egin da eta esku-hartze zuzena izan dugu Gipuzkoako koordinazio batzordean.



GALTZAUNDIKIDEEN FORMAKUNTZA

o Profesional eta borondatezko lankideen barne-prestakuntza 2 saio antolatu dira: Lehena, Orendainen, ekainaren 20an: Euskal Herriko euskalgintzaren egitura eta Tolosaldeko euskalgintzaren bilakaera. Hizlariak: Garioitz Goikoetxea, Josu Ozaita eta Kike Amonarriz. <https://www.galtzaundi.eus/formakuntza-saioa-izan-dugu-orendainen/>. Bigarrena abenduaren 12an, telematikoki: Euskara Tolosaldean, kartografia bat: bilakaeraren zergatiak; Hizlaria: Garioitz Goikoetxea.

o Lan-talde profesionalako kideek hainbat mintegi eta ikastaroetan parte hartu dute: Topaldian 3 kide (Topagunea, Bilbon Otsailak 6); Udaltop-en 2 kide (maiatzak 14, online); Denbora kudeaketa eta konpromisoa jardunaldian 2 kide (Tolosatzen, apirilak 6 eta 8); Nerabe eta gazteen hizkuntza errealitatea saioan kide bat (Soziolinguistika klusterra, urriak 28).



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Zirrarraldia

Azken urteetan, urtero-urtero, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimen bateratua landu du Galtzaundi Euskara Taldeak eskualde guztirako. 2020an, ordea, osasun larrialde egoera medio, herritarrengandik kalean egiteko ekimenik ez antolatzeke erabakia bultzatu zen. Horren ordez, sareetan lantzeko ariketa bultzatu da, Zirrarraldia izenpean. Egitasmoa honen bitartez, euskararekin zuzenean lotuta sentitutako zirrarak eta momentuak bildu nahi izan dira sare sozialetan, #zirrarraldia traolaren bidez. Ekimena girotzeko 3 bideo editatu dira, Galtzaundiren sare sozialetan zabaldu direnak. Hurrengo urtera begira, kalean gauzatzeko ekimena berreskuratzeko beharra aipatu dute euskaltzaleek.



HEZI ETA LAN

Lan praktikak euskaraz

Eskualdeko Lanbide Eskoletan euskaraz hezitako ikasleek beren lan ibilbidea euskaraz hasteko baldintzak sortzeko laguntza ematen jarraitzeko baldintzarik ez dugu izan. Praktikak egiten hasi orduko etxera joan behar izan baitute ikasleek COVID 19-aren eraginez hartu diren neurriak direla-eta. Proiektuari 2021ean jarraipena emateko aukerak aztertuko dira.



MINTZALAGUNA

Euskara ikasten ari direnei euskara praktikatzeko lagun arteko espazioa eskaintzea da honen helburua, euskararen erabileran trebatu daitezen: lotsak eta beldurrak gainditu eta esperientzia atsegina edukitzea da lortu nahi dena. Egiari zor, ikasturtearen azken hiruhilekoa Covid-19ak erabat baldintzatu du, taldeak bere dinamika etetera behartuak egon direlako. Horrek halere ez gaitu geldiarazi eta bitarteko teknologikoen bidezko plan-teamenduak egin ditugu. Zehaztasunak:

- o 2019ko irailean izen eman zuten 63 lagun aritu dira 9 taldetan banatuta urtarrila-ekaina bitarte astero-astero euskara praktikatzeko.
- o 9 talde horietako bidelagunei motibazio saioa eskaini zaie, egitasmoaren inguruko azalpen teorikoak eta EHko beste herrietan dauden taldeen eta Topaguneko kanpainaren berri emanaz (otsaila).
- o Covid 19k eragindako etxealdia dela-eta, #itxialdianeuskaraz abiatu genuen martxoaren amaieran; gero, Euskal Herri osoan Topaguneak hedatu duen MintzalagunOn sarea antolatzea proposatu genuen: Tolosaldeko 4 taldek hartu dute parte.
- o Euskara praktikatzeko zailtasunak dituzten Bilboko haur eta gazteei laguntzeko inizatibian parte hartu dugu euskaraz dakiten bolondresak lortzeko deialdia zabalduz eta bideratuz.
- o Ekintza osagarriak egin dira: martxoaren 2an Mintzatxotx jaian parte hartu zuten Mintzalagunek. Urte amaiera bitarte programatuak genituen bi ekintzak ez ziren burutzerik izan etxealdiagatik, baina on-line formatoko beste bi eskaini ditugu: ardo dastaketa eta Mintzodromoa. Azken hauek Euskaltzaleen Topaguneak kudeatu ditu eta, bertan parte hartzen dugun Euskal Herriko Mintzalagunetako partaide guztiak izan gara gonbidatuak.
- o Ikasturteari amaiera emateko ordu eta egun berean talde bakoitza elkartu eta bukaera alaia ematea gonbidatu ziren. <https://www.galtzaundi.eus/amaitu-dute-ikasturtea-mintzalagun-taldeek/>
- o 2019-2020 ekitaldiaren balorazioa egin da eta Tolosaldeko Mintzalaguna 2020-2021 plangintza bateratua landu da uztaillean Eskualdeko Euskara Zerbitzu, UEMA eta AEK-ko teknikariekin gauzatutako bileretan. Galtzaundik deitu eta koordinatu ditu.
- o 2020-2021 ikasturteari hasiera eman zaio: izen eman duten partehartzaileak taldetan antolatu eta, talde bakoitzaren hitzorduak zehaztu dira; Tolosan 8 talde eta Ibarran talde bat jarri dira martxan: 9 bidelagun (6 emakume eta 3 gizonezko), eta 51 bidelari (43 emakume eta 8 gizonezko).
- o Covid egoeragatik taldean bildu ezin izan denetan edo tabernak itxita egon direnetan, taldearen dinamika ez hausteko irtenbideak topatu dira.



IRAKURLE TALDEA

Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea eta irakurtzeko ohitura dutenei euskarazko literaturaz hitz egiteko espazioa eskaintzen zaie Tolosan. 10 saio antolatzea da helburua eta, konfinamendu egoerak zenbait aldaketa egitera behartu bagaitu ere, aurtengoan ere 10 saio egin dira: <https://www.galtzaundi.eus/kategoria/irakurle-taldea/>

o Datak eta irakurgaiak: urtarrilaren 22an, Gailur ekaiztsuak, Emily Bronte; otsailaren 19an Irautera, Castillo Suarez; apirilaren 22an, Deklaratzekorik ez, Beñat Sarasola; maiatzaren 20an Hadji Murat, L.Tostoi; ekainaren 10ean, Hezurren erretura, Miren Agur Meabe; uztailaren 8an, Jekyll doktorearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia, R.L. Stevenson (martxotik atzeratua osasun krisiagatik), Itzultzailea: Koro Navarro; irailaren 22an, Gerrak ez du emakume aurpegirik, Esvetlana Aleksievich, Iker Sanchok itzulua; Urriaren 20an, Miñan, Amets Arzallus, Ibrahima Balde; Azaroaren 26an, Trikua esnatu da, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel; abenduaren 15ean, Antzara eguna, Harkaitz Cano, Adur.

o Idazleak parte hartu duen saioak: otsailaren 19an, Castillo Suarez; apirilaren 22an, Beñat Sarasola; eta Ekainaren 10ean, Miren Agur Meabe; azaroaren 26an Lorea Agirre.

o Saioen antolaketa eta parte-hartzea: presentzialki antolatu dira urtarrila, otsaila, uztaila, iraila, urria, azaroa eta abenduko saioak. Telematikoki, apirila, maiatza eta ekainekoa. Presentzialki egiten direnean Kultur etxean biltzen da taldea; ordea egungo egoerak lekuz aldatzea ekarri du bi saiotan: uztailakoa kalean egin zen eta azarokoa Herrikide ikastetxeko kiroldegian. Saiotara, batz bestea, 12 lagun inguru bildu dira.

o Saio guztiak Yurre Ugartek gidatu ditu. Titulua eta idazlea aukeratzerakoan kontuan hartu dira genero berdintasun irizpideak.



SORMENETIK



Tolosako azokaren markoan, euskal kulturgintzaz hausnartzeko eta kultur esparru ezberdinetako sortzaileak, herritarrak eta euskaltzaleak batzeko gunea da. Maiatzerako saio bat genuen programatua eta bigarrena urrirako. Osasun krisiaren eraginez, ezinezkoa izan zenez maiatzekoa antolatzea, irailean eta urrian egitea erabaki zen. Hala ere, urrirako aurrikusita zegoena ere ezin izan zen gauzatu. Zehaztasunak:

o Irailaren 12an gauzatu da aurtengo saio bakarra; ohitura denez, Tolosako Zerkausiaren azpiko gunean. Uxue Alberdi eta Eider Rodriguez elkarrizketatu zituen Ane Urkolak. Uxue Alberdiren Kontrako ezta-rritik eta Eider Rodriguezen Idazleen gorputzak obren harira, feminismoa erdigunean jarri eta euren bi- zipenez, sormen prozesuez, bizitzan zehar ezarritako mugez edota askatasunaz aritu dira, besteak beste. Saioa osatzeko Arantzazu Mujikak eta Ainhoa Elizondok jarri diote musika saioari. Egokitutako gunean jarritako 50 eserlekuak bete dira. Oso harrera ona izan du saioak. Osasun baldintza guztiak zaindu dira eta ez du eragozpenik eragin, ez unean eta ez ondoren. Tolosaldeko Atariak eta 28 Kanalak saioaren berri eman dute, eta Galtzaundiren webgunean jarri da saio osoaren bideo grabaketa.

o Urriaren 3an genuen antolatzeko bigarren saioa baina bertan behera erori da.

o Urriaren 29an, Hemendik joaten da mundura? hitzaldia eskaini du Maialen Lujanbiok, Ibarra.

Lankidetzak: Tolosako Arraun Klubarekin, Box.a-rekin, Tolosako Kultura sailarekin eta Ibarra Euskara Batzordearekin dugun hartu-emana sendotzeko aukera ematen digute saio hauek.



ANOETA ETA IRURAKO ENPRESAK

- Anoeta eta Irurako 10 enpresetan euskararen ikusgarritasunak eta erabilerak tokia irabazteko lana egin da: hamar enpresa hautatu dira (Anoetako sei eta Irurako lau); hizkuntza paisaia eta idatzizko eta ahozko barne zein kanpo harremanen iguruko datu bilketa egin da; euskara departamenduko itzulpen zerbitzuaren berri eman zaie; Euskaraldiaren baitan ariguneak sortzeko bitartekoak eskaini dira; memoria xehatua idatzi da eta Udal arduradunei aurkeztu zaie.



XXII. IBARRA GALTZAKOMIK KOMIKI LEHIAKETA

Sorkuntza eta euskara uztartuz, gazteen artean euskararen erabilera sustatzea, gazteek grafismoa euskaraz lantzea eta komikigintza afizio edo ofizio dutenei euren lanak kaleratzeko eta ikusgarri egiteko plaza eskaintzea du helburu proiektu honek.

Komiki lehiaketa hau Ibarra euskara batzordearekin batera ondu da eta bertako Udalaren lankidetzarekin burutu da. Xede taldeei dagokienez, adin maila txikietatik (eskualdeko ikastetxeekin elkarlanean) helduetaraino zabaldu da. Helduen mailakoa irekia da. Hona zehatzago:

- 9 urte artera arte.
- 10-12 urte bitartekoak.
- 13-16 urte bitartekoak.
- 17 urtetik gorakoak

Euskal Herri osoan helburu hauekin antolatzen den bakanetakoa da eta badu arrakasta, batik bat, adin txikietan. Horregatik, ahalegin berezia egin da ekimena gizarteratzen eta bere emaitzak ezagutarazten: lan saritu eta aipatuei ikusgarritasuna eman Ibarra euskara batzordearen kultur etxeetan, Ibarra saltokietan, ... ikusgarri jarri, edo argitaratuz gure webgune eta tokiko hedabideetan. Hauek dira eman diren urratsak:


- Ibarra euskara batzordea eta Udalarekin lehiaketaren oinarriak adostu dira (martxoa).
- Lehiaketaren berri emateko zerrenda osatu da: Euskal Herriko komunikazio enpresen, ilustratzaileen, komunikazio eta diseinu eskolen, batxilergo artistikoko eskolen eta euskal etxeen zerrenda osatu; eta aurreko parte-hartzaileen zerrenda (apirila-maiatza)
- Sariak adostu dira eta babesleak lortu (ekaina)
- Komunikazio plana diseinatu da (maiatzak): kartelak, esku-orriak, euskarri digitalak, promozioak ... Berrikuntza, ilustratzaile eta komikigile ezagunen bideoak sortu dira: Asisko Urmeneta, Joseba Larratxe, Yurre Ugarte eta Ainhara Azpiaz "Axi" (iraila)
- Ikastetxeetako arte tailerreko irakasleei proposatu eta formazio saioak eskaini dira (urria).
- Zabalkunde pertsonalizatua: goian aipatu dugun zerrendan ageri diren guztiei (arte eskola eta aurreko urteetako parte-hartzaileak) gutuna bidali zaie lehiaketaren oinarriak jasotzen dituen eskuorriarekin batera.
- Aurkezpen prentsaurrekoa egin da irailaren 30ean. <https://www.galtzaundi.eus/martxan-da-xiii-ibarra-galtzakomik-komiki-lehiaketa/> Ondoren, zabalkundea eman zaio komunikabide eta sare sozialen bidez.
- Eskualdeko ikastetxe guztiei aurkeztu zaie proiektua eta parte hartzera gonbidatu: Hezkuntza Euskara Batzordean hizkuntza normalizatzaileei, mahai honetan ez dauden ikastetxeetara joan gara.
- Lanak bildu dira eta sailkatu dira: denera 251 lana bildu dira; lehiaketako sail guztietan egon da parte hartzea eta, Tolosaldeko eta gipuzkoako parte hartzaileez gain, Euskal herriko beste hiru herrialdeetatik jaso dira lanak.
- Ibarra 8 dendetako erakuslehoetan aurreko urteetako irabazleen lanak jarri dira ikusgai azaroaren 24tik abenduaren 18a bitarte.
- Sari banaketa: abenduaren 18an egin da Ibarra plazan, aforo mugatuarekin eta hartu beharrek segurtasun neurri guztiekin.
- Jasotako lanen erakusketa jarri da Ibarra Kultur Etxean, abenduaren 18tik 30era.
- Lehiaketak eman duen guztiaren txostena egin da eta Ibarra udalean aurkeztu da.



IKASLE EUSLEAK

Ikasleen artean hizkuntza kontzientzia indartzea eta erabilera ohituretan eragitea helburu duen proiektua da hau. Ez da proiektu isolatu bat: UEMAren arnaguneetako ikasleak ahalduntzeko HEDATU proiektua eta hau elkarren osagarri dira. UEMAK edukietan eta teoriarantz lantzen duena, proiektu honekin praktikan jartzen du. Zehaztasunak:

- o Tolosaldeko DBHko ikastetxe guztietan egitea zen asmoa, proiektua 12-16 urte bitartekoentzako diseinatu delako, baina hiru ikastetxeetan ez da egiterik izan hainbat arrazoigatik.
- o Ondorioz, bost ikastetxeetan hasi da proiektua: Tolosako Laskorain ikastola eta Herrikide kristau eskola, Alegiako Aralar institutua, Anoetako Herri Ikastola eta Ibarrako Uzturpe ikastolan.
- o Bete-bete harrapatu du COVID19aren krisiak, eta ez du utzi ikastetxe guztietan hasitako lana azken bururaino eramaten. Bitan lortu da proiektua amaitzea: Alegiako Aralar institutuan eta Ibarrako Uzturpe ikastolan; beste ikastetxeetan, erdizka geratu da.
- o Memoria xehetua osatu da eta parte hartu duten ikastetxeetara eta udalerrirantz horietako udaletara bideratu da. Bertan, (babesleontzat eskuragarri) atal hauek jasotzen dira: sarrera, Tolosaldeko errealitatea, oinarri teorikoa, egitasmoaren funtsa, metodologia, euslearen zeregina, ikastetxearekiko koordinazioa, eusleen hautaketa, proiektuaren garapena, ondorioak, hurrengorako kontuan hartu beharrekoak, aurrera begirakoak, bibliografia eta eranskinak.





TOPALDIA

Hizkuntza aniztasuna, zubi bat euskaratik

PARTE HARTZEAK

Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.: Tolosaldeko Ataria ekoizten duen empresa da hau. Galtzaundi Euskara Taldeak %25eko parte-hartzea du kapitalean eta, estatutuek jasotzen duten bezala, Administrazio Kontseiluko lehendakaritza dagokio Galtzaundi Euskara Taldeari. Xabier Saizarrek bete du kargua sorreraz gero; Garikoitz Goikoetxeak hartu du ardura hori 2019an.

Euskaltzaleen Topagunea: Euskal Herriko euskara elkarteen bilgunea da hau eta bertako kidea da Galtzaundi Euskara Taldea sorreratik bertatik. Administrazio Kontseiluko kide izatea proposatu ziguten 2019an. Zuzendaritza Batzordeak Jexux Murua izendatu zuen eta, beraz, Administrazio Kontseiluko kidea da maiatzaz gero.



EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA TOLOSALDEAN

Euskararen Historia Soziala Tolosaldean proiektua lantzen ari gara. Haritz Azurmendi zuzendaritzakideak, filosofian lizentziatua eta Gizartea, Politika eta Kulturen doktore denak, idatzi du proiektua eta Jakintza batzordearen onespina du. Proiektua zehaztu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu da, eta entitate honen finantzaketa lortu da. Hiru urteko lana aurreikusten da fase eta hurrenkera honekin: lehen fasea, EHS Tolosaldean 1936tik gaur egunera (2021ean egiteko); bigarren fasea, EHS Tolosaldean 1883-1936 (2022an egiteko); azken fasea, hirugarrena, EHS Tolosaldean lehen aipuetatik 1833ra (2022an egiteko).



HITZALDIAK

- Galtzaundi Forum-a errekupeartzeko proiektua landu da apirilean. Jakintza Batzordeak maiatzean eman zion onarpena, halere ez da baldintzarik ikusi bere osotasunean abian jartzeko.
- Hitzaldi egitaraua: alderdi soziolinguistiko eta kulturaletik egindako begiradak ekarri nahi izan dira eskualdera. Egitarau zabalagoa eta aberatsagoa nahiko genukeen, baina Covid 19ak ez digu erraztasunik eman. Hau izan da egitaraua:
 - o Maialen Lujanbio: Hemendik joaten da mundura, Tolosan, abenduaren 3an.
 - o Maddi Etxebarria (Elhuyar). Euskara bigarren sektorean eta lan munduan, Tolosan, azaroaren 25ean.



MERKATARITZA PROIEKTUA

hizkuntzaren erabilera eta ikusgarritasuna indartzeko gune estrategikoa da 3. sektoreak eskaintzen diguna. Sektore horretan euskarak duen egoera (paisaia, kideen hizkuntza gaitasuna, erabilera) behatzen, eta jendea euskararen normalkuntzan engaiatzeko erremintak eskaintzen ari gara Tolosa (UEMArekin elkarlanean), Amasa-Villabona eta Ibarra, merkataritza elkarteekin eta Udal horietako euskara zerbitzuekin koordinatuta. Hauek dira 2020an egindako lanketen xehetasunak:

o Amasa-Villabonako lanketa (ekaina-uztaila): 110 saltoki bisitatu dira, saltokietako arduradunen eta langileen hizkuntza gaitasuna (263 kide) behatu da, euskaratzeko materialak eskaini zaizkie behar zutenei (25 saltoki), Euskaraldian parte hartzeko gaitasuna neurtu da (%74k bai), Euskaraldiaren baitan ariguneak sortzeko bitartekoak eskaini dira, egindako material eskaerei erantzun zaie. Komunikazio lana (aurretikakoa eta ondorengoa) egin da herritarren eta merkatarien sentsibilizazioa eragiteko eskualdean hedadura duten hedabideen bidez, Galtzaundiren medioen bidez eta Udalak eta merkatariei elkarteak dituzten medioen bidez. Guztia memoria xehatuan jaso da eta Udala eta Merkatarien Elkarteko arduradunei aurkeztu zaie.

o Ibarra lanketa: 63 saltoki bisitatu dira, saltokietako arduradunen eta langileen hizkuntza gaitasuna behatu da; Euskaraldian parte hartzeko gaitasuna neurtu da, Euskaraldiaren baitan ariguneak sortzeko bitartekoak eskaini dira, eta entitatea euskalduntzeko eskaintza egin da (joan den urtean baina zortzi aldiz gehiago (+800) material eskatu da); izandako eskaerei erantzun zaie, memoria xehatua idatzi da eta Udal arduradunei eta merkatariei aurkeztu zaie. Komunikazio lana (aurretikakoa eta ondorengoa) egin da herritarren eta merkatarien sentsibilizazioa eragiteko eskualdean hedadura duten hedabideen bidez, Galtzaundiren medioen bidez eta Udalak eta merkatariei elkarteak dituzten medioen bidez.

o Tolosako lanketa: martxoan eman zitzaion hasiera eta COVID-19aren eraginez azaroan amaitu behar izan da. 472 saltokiren inguruko informazioa biltzeko ahalegina egin da eta horietatik 425 izan dira egitasmoan parte hartu dutenak (Covid-19a dela eta, ezinezkoa izan da 47 ostalaritza saltokietako informazioa biltzea): 425 saltokietako arduradunen hizkuntza gaitasunari buruzko datuak bildu dira landa-lanean zehar eta, horrekin batera honako baliabideak eskaini zaizkie: udalaren diru –laguntzen inguruko informazioa, itzulpen zerbitzua, aholkularitza linguistikoa, arlokako hiztegiak, euskaltegiko informazioa, etiketak eta kartelak. 123 izan dira eskaeraren bat egin duten saltokiak, %29 inguru eta horiei materiala eman zaie. Neguko eta udako merkealdi kanpainetarako, 93 saltokietan materiala eskaini da: Neguko kanpainaren baitan 346 kartel banatu dira eta udako kanpainan berriz, 374 kartel banatu dira. Merkatarik elkarrekin elkarlanean, martxoko Braderie azokarako materiala (karteldegia) eskaini da. Merkataritza sektorean ariguneak sortu dira eta Ahobizi / Belarriprest praktikak aktibatu dira. Horretarako, beharrezko informazioa eta bitartekoak eskaini ditu Galtzaundi; Tolosako 83 saltokietan Ariguneak sortu dira. Euskaraldian parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten saltokiak 323 direla kontuan hartuta, %25 izan dira Euskaraldian izena eman duten saltokiak, eta Euskaraldian izena eman duten saltokietan argazkiak atera eta sare sozialetan zabaltzeko dira. Egitasmoaren amaierako zabalkunde komunikatiboa egin da tokiko komunikabideetan, Galtzaundiren sare sozialetan zein web guzietan eta, Merkatarik Elkartek, UEMA eta Udalak, bakoitzak berea medioen bidez.



GEHIAGO, GEHIAGOTAN, GEHIAGOREKIN EKITALDIA

Irailaren 26an, 12:00etan, antolatu da Tolosaldeko Leidor antzokian azken hamarkadetan Tolosaldeko euskararen bilakaeran protagonista izan diren erakunde eta norbanako esanguratsuen lana gizarteratu eta eskertzeko ekitaldia. Ekitaldia, bidez batez, Euskaraldia aurkeztu eta bertan parte hartzeko izenematealdiari hasiera emateko baliatu da.

Saioak ezaugarri hauek izan ditu:

- o Galtzaundi Euskara Elkartek antolatu du.
- o Diseinua eta antolaketa: sei kideko taldea eratu da zuendaritzako kide eta lan-taldeko kideekin: Maite Asensio, Nagore Arin, Kike Amonarriz, Mikel Artola eta Garikoitz Goikoetxea zuzendaritzakideak eta Igor Agirre eta Jexux Murua lankideak.
- o Ekitaldiaren aurkezleak: Nagore Arin, Mikel Artola, Kike Amonarriz, Jone Garmendia, eta Ane Izagirre zuzendaritza kideak, eta Imanol Artola aktibazio teknikaria.
- o 100 urteko historia: Tolosaldeko euskalgintzaren ibilbide historikoa azaltzen duen bideoa editatu eta emititu da bertan: Kike Amonarrizek egin du gidoia eta Igor Agirrek edizioa.
- o Bilakaera soziolinguitikokoaren azalpena: Tolosaldeko bilakaera soziolinguistikoa azaltzeko datuak eman dira grafikoz lagunduta.



- o Ospakizuna: Olaia Toral kantari gaztea eta Maider Iñurrita eta Iker Gonzalez musikarien kantuak, Antton Telleriaren bakarrikzeta, eta Angel Mari Peñagarikano, Amaia Agirre eta Haritz Mujikaren bertsoak.
- o Eragileon benetako elkarlana irudikatu da: eskualdeko herri guztietako ordezkariak, gehienak udal ordezkarien bidez, igo dira oholtzara eta euskara indartzen jarraitzeko konpromisioa azaldu dute: Tolosako alkate Olatz Peon, Altxoko zinegotzi Karmen Murua eta Zizurkilgo zinegotzi Matti Navasek irakurri dute adierazpena.
- o Tolosako Udalak doan utzi du Leidor entzokiak dituen arauari jarraiki (irabazi asmorik gabeko elkarteei uzteko baldintzak). Molatu taldeak, Leidor antzokiaren kudetzaileak, egin ditu soinu, argi, proiektzio eta aretoaren antolaketako eginkizunak.
- o Osasun krisiak jartzen dituen mugak kontuan hartu dira: gonbidapen pertsonalizatuak egin dira. Aldez aurreko komunikazio lana egin da (kartelak, pentsaurrekoa irailaren 15ean etab), baina gonbidapena eskatu behar zen. 300 ikusentzule izan ditu saioak (250 zen helburua).
- o Eskualdeko hiru tokiko hedabideek (Aiurri, Tolosaldeko Ataria eta 28 Kanala) elkarlanean egin dute jarraipena: Aiurrik argazkiak, Tolosaldeko Atariak artikulu idatzia eta 28 Kanalak ekitaldiaren grabazioa eta elkarrizketak. Material guztiak partekatu dute egiletza aitortuz eta esteka bidez lotuz.





BEHAKETAK

Begirada zabaldu eta ikuspegi orokorra indargunetzat hartuta, Tolosaldeko egungo errealitatea ezagutzeko azterlanak egin dira urte hasieran egindako plangintzari jarraituz; halere, Covid 19ak sortutako egoerak, honek euskararen erabileran izan duen azterketa egitera bultzatu gaitu. Guztiak, Tolosaldeko euskalgintzaren ibilbideari eta norabideari behaketa zehatza egitea du helburu batetik, baina are aldian aldiko egoerak eskatzen dituen neurri eta metodoak planteatzeko oinarri zientifikoa izatea. Zehaztasunak:

- Tolosako merkealdietako hizkuntza paisaiaren behaketa: lan handia eta jarraitua egiten ari gara Tolosako sektore honetan. Bi urtez behin merkealdi aroak behatzea erabaki dugu eta 2020an egitea egokitu da. Neguko (urtarrila) eta udako (uztaila) merkealdi kanpainak behatu dira: 93 saltoki. Datuak prozesatu eta aurreko urtekoekin erkatu dira; ondorio txostena idatzi da.

- Hirugarren sektoreko erabilera behaketa: azken urtetan lan jarraitua egiten ari gara Tolosa, Amasa-Villabona eta Ibarako saltokien euskalduntzean. Urtean urteko neurri zuzentzaileak proposatzeko behaketa lan zehatza egiten da: kanpo eta barne hizkuntza paisaia, saltokietako arduradun eta langileen hizkuntza gaitasuna (modu aitortuan jasotzen da) eta erabilera aztertzen dira eta bilakaerari buruzko ondorioak ateratzen dira. Hau izan da aurreko egindako lanketa:

- o Amasa-Villabonako: 110 saltoki behatu dira, datuak prozesatu dira eta ondorio txostena idatzi da. Ondorioak Amasa-Villabonako udal ordezkari politiko eta teknikoei aurkeztu zaie.

- o Ibarako lana egin da eta datuak prozesatu dira: 73 saltoki behatu dira, txostena idatzi da eta Ibarako udal ordezkariari aurkeztu zaie.

- o Tolosako: 455 saltoki behatu dira, txostena idatzi da eta Tolosako udal ordezkariari aurkeztu zaie.

Kaleko hizkuntza-erabilera, Tolosa (2019)



 **galtzaundi**
TOLOSA

o COVID 19-aren eragina hizkuntza erabileran: “Nolako hizkuntza paisaia utzi du “Itxialdiak”? Zein hizkuntza erabili dute saltokiek sare sozialetan? COVID19 alarma egoerak eragin dituen aldaketa eta premien aurrean, interesgarria iruditu zaigu bi galdera horiei erantzuntea eta saltokiek zein hizkuntza portaera izan duten aztertzea. Erabakiaren urgentziak eta denbora eskasiak, lanketa zedarritu behar izatera bultzatu gaitu, eta Tolosako merkatarietara mugatu dugu lagina. Kaleetako paisaia eta sare sozialetako eskaintzak behatuko dira. Behaketa lana maiatzean egin da; 100 saltokiren lagina jaso da eta ekain eta uztailan egin da datuen prozesatzea eta ondorioen txostena idazteko lana.

o Kale-erabilera neurketak. Tolosa da kale-erabilera datu gehien dituen herria, 1985az gero urtero egiten baita datu bilketa; azken urteotan, Galtzaundi Euskara Taldeak hartu du lan hori egiteko ardura. Ibarran ere bide bera hartzea deliberatu genuen orain dela bi urte, eta ekaina-uzatiletan egitea entzuketak lanak. COVID 19-ak aldarazi dizkigu lan-ildo honetako helburuak ere: Tolosako 2019ko entzuketak datuak prozesatu eta ondoriok atera dira, eta abenduko entzuketak lanak egitea erabaki da; Ibarran, berriz, aurrean ez egitea erabaki dugu. Egindakoak:

o 2019ko abenduan egindako datu bilketa prozesatu eta ondorioak atera dira urtarrila-otsailetan, urtekoak eta erkatuak: 3.246 elkarrizketaren eta 8.647 hiztunen informazioa prozesatu da.

o Txostena idatzi da eta Tolosako Udaleko euskara batzordean aurkeztu da: lehen aldiz espainola (%48,5) baino euskara gehiago (%49,1) entzun dugu Tolosako kaleetan.

o Emaiza historikoa dela iritzita, zabalkunde berezia eman zaio ospakizun tonuan, eta oihartzun handia izan du Euskal Herriko mugetan eta baita errepikaren bat edo beste muga hauetatik at.

o Tolosaldean gehiago, gehiagorekin, gehiagotan ekitaldia antolatzekeko arrazoietakoa izan da, euskalgintzak mezu positiboak, “garaipenak”, behar dituela iritzita.

o Urtero bezala, abenduan kale-neurketa egin da Tolosan.

HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Komunikazioaren gizartean bizi gara eta nahitaezkoa zaigu komunikazio plangintza egoki planifikatua garatzea, barne eta kanpo komunikazio estrategiak ondo definitzea eta horiek gauzatzea:

- Komunikabideekin informazioa elkartrukatzea eta lankidetzat: Tolosaldeko komunikabideekin (kasu batzuetan nazio mailakoekin ere bai) informazio trukatzea eta euskararen gaia horietan txertatu dadin erraztea da helburua. Bereziki medio hauekin egin da lan: Tolosaldeko Ataria, 28 Kanala, Aiurri, El Diario Vasco-herrietako kronikak, Noticias de Gipuzkoa-herrietako kronikak.

- Eguneroko komunikazioa eta Euskaraldia: Galtzaundiren ohiko jardunak eskatzen dituen komunikazio materialak sortu eta kudeatu dira. Dedicazio berezia eskaini zaio Euskaraldiari: eskualde osorako komunikazio plana diseinatu eta koordinatu da behar diren materialak sortuz eta herrietako antolatzaileen eskura jarritz.

- Eskualdeko hiru tokiko hedabideen elkarlana sustatu: Aiurri, 28 Kanala eta Tolosaldeko Ataria hedabideen arteko elkarlana sustatu dugu. Emaizta esanguratsuak: Euskaraldiko promozio materialak (28 kanalak bideoak, Aiurrik eta Tolosaldeko atariak idatzizko euskarriak, eta guztien webguneetan material guztia zabaldu) eta Tolosaldean Gehiago, Gehiagorekin, Gehiagotan ekitaldian egindako lan bateratua.

- www.galtzaundi.eus eta sare sozialak: webgunea etengabe eguneratu da erakargarritasuna irabazteko. Aldi berean, gehien erabiliak diren sare sozialetan Galtzaundiren lanketak eta euskararen inguruko berriak eta hausnarketak plazaratu dira. Emaizak begi bistakoak dira 2019an izandakoekin alderatuta: webguneen bisitak %29,30eko igoera izan dute (8.134) eta erabiltzaileak %43 gehiago izan dira.

- Barne komunikazioa: bereziki zaindu da Galtzaundi kideekiko harremana, baina baita Tolosaldeko euskaltzale eta erakundeekikoa ere. 555 kidek jasotzen dute hilero elkarlearen egitasmoak eta erabaki nagusiak ez ezik euskaltzaleentzat interesgarri dela irizten diogun edukiez hornitutako boletin digitala.

- 2019. urteko jarduna biltzen duen bideoa eta aldizkari digitala argitaratu dira eta baita 2020 egitasmoa biltzen duen aldizkari digitala ere.

- Egindako lan esanguratsuenen zabalkundea. Gure bide propioak erabiliz, egindako lan esanguratsuenen emaitzak jarri dira gizartearen eskura.

TOLOSALDEKO ATARIA

Galtzaundi aldizkaria, Tolosaldeko Hitza eta Txolarren irratia bategatik 2013ko urrian abiatutako proiektua da hau. Horretarako sortu zen Tolosaldeko Komunikazio Taldea E-M.-ko partaide da Galtzaundi Euskara Taldea eta, beraz, honen ardurako egitasmo garrantzitsuenetakoa dela esan behar da.

Proiektu multimedia da Tolosaldeko Ataria: harpideei etxera banatzen zaien Tolosaldeko Atariak (asteartetik ostegunera argitaratzen den egunkaria eta ostiralean argitaratzen den astekaria), www.ataria.eus interneteko atariak, eta 24 ordutik emititzen duen Ataria irratiak osatzen dute eskaintza.

Audientziei dagokienez: papereko edizioak, 2.100 harpide inguru ditu eta egunero batzbestek 16.000 irakurle esleitu dizkio CIES-ek 2020an; egonkor mantentzen da. www.ataria.eus-en audientzia gora doa urtetik urtera: 357.109 (+%15,08) erabiltzailek 1.947.607 (+%18,43) bisita egin zituzten iaz eta mugimendu handia dute gure sare sozialek; audientzia hori Atariaren bideragarritasunean partaide izatea nola lortu da desafioa. Irratiak uhin bidez duen audientzia ezin dugu neurtu, baina internetez bidezko audientziak gorakako joera erakusten digu; audientzia gutxi duen komunikabidea da baina bizitasun handia ematen dio proiektuari. Administrazio kontseiluak, balorazio hau egin zuen urte amaieran.

-2021a ere harpidetzak lantzeko urtea izan behar du eta, ohiko harpidetzari bizkarra eman gabe, desafio nagusia, Atarikide Digitalek izan behar dute. Herritarren egoera ekonomikoa hobetuz, 2021ean ere kanpaina eta saiakera ezberdinak egiten jarraituko beharko da.

- Publizitate eta zerbitzuetan ere lanketan egin beharko dira 2021ean, 2020ko kolpearen ondoren zaila izango bada ere, autofinantzaketa lantzen joan beharko da.

- Herri txikiak zaindu egin behar ditugu; albiste gutxi dauden herrietan bertara joan beharko litzateke edo herrian konplizeak bilatu. Gaiekin ere berdin.

- Multimedia edukietan sakondu behar da.

- Herritarren parte hartzea eta inplikazioa areagotzeko ere saiakerak egingo dira.



TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA (TEM)

Lan ildo honetan urrats esanguratsuak eman dira aurreko bi urtetan. Mahai gainean dauzkagu eragile desberdinen artean ondutako TEM izaera, egituraketa eta funtzionamedua proiektua (Sia-deco) eta TEM 2020-2022 Ekintza Plana (Tolosaldeko Euskara Teknikarien Batzordea): Prozesu luze horren ondoren, azalean daude adostasun nagusiak (misioa, helburuak, eskualde ikuspegia, ekintza ildo zehatzak, euskalgintza instituzional eta sozialaren benetako lankidetzan oinarritutako gobernantza...) eta zalantzak eta zailtasunak (izaera, egitura, baliabideen berrantolaketa moduak, finantzaketa ...).

Zailtasun korapiloak askatzea eta proiektua egikaritzen hastea zen 2020rako genuen helburua. Osasun krisiak geldialdi handia eragin du ordea, eta urrats berrien atzerapena. Egoera zail honetan, non euskararen toki-galtzea nahikoa agerikoa izan den oro har, eta baliabide ekonomikoen urritzea nabarmena izango den, orduan eta beharrezkoagoa egiten duela uste dugu, eragile sozial eta instituzionalen bilgunea eratzea, eta Tolosaldeko hizkuntza politika aurreratzeko lidertza berria egituratzea: helburu komun, baliabideen optimizazioaren eta eraginkortasunaren aroa bizi dugu. Denon beharra dago, batu egin behar dugu osagarriak izanez, eraginkorragok eta indartsuagoak izateko. Gogoeta honek eraginda, honoko urrats hauek eman ditugu:

- Eragile nagusi batzuekin partekatu dugu kezka, urte hasieratik: Sebastian Zurutuza eta Garbiñe Mendizabal (Gipuzkoako Foru Aldundia, otsailak 17), Xabier Balerdi (Tolosako Udala, apirilak 14), Iraitx Lazkano, Joseba Palentzuela eta Miren Segurola (UEMA, ekainak 6), Tolosaldeko Euskara Teknikarien Batzordea.



- Prozesua hauspotzen jarraitzeko Batzorde proposatzailea eratu dugu. Hona partaideak; Mikel Artola (Galtzaundi Euskara Taldea), Maite Arregi (Euskara Teknikarien ordezkaria), Miren Segurola (UEMA) eta Joxin Azkue (Manuel Larramendi Bazkuna). Sei bilera egin ditu: ekainaren 6an, uztailaren 3an, irailaren 11n, urriaren 9an, azaroaren 6an eta abenduaren 4an.
- Izaera, egitura eta funtzionamenduaren inguruko eztabaida bideratu nahi da 2021ean. Metodoa landu eta adostu beharko da inplikaturako eragileekin.
- Egitura beregain hartu gabe bada ere, TEM modelo praktikara eramateko planteamendua lantzen ari da taldea. Galtzaundi Euskara Taldeak koordinatuko luke ekimena.
- Abenduaren 20an Lehiberrin, eskualdeko udal guztietako ordezkariak gonbidatuta zeuden aurkezpenez ekitaldian 2021ean TEM modeloari jarraituz gauzatzeko Ekintza Plana proposatu da: 6 lan-ildo, ekintza zehatzak, eragile bakoitzaren egitekoak etab.
- Galtzaundi Euskara Taldeak, ekimena koordinatzeaz gain, esleitzen zaizkion funtzioak beteko ditu. TEM ez da Galtzaundi Euskara Taldearen proiektua, bere izaera propioa du; bitarteko propioak ez dituelako arduratuko da Galtzaundi bere koordinazioaz.



2020KO MEMORIA

